

k:

Kultura

Amalur ARTOLA | DONOSTIA

«Euria memorian / erdi bi egina / min eta musu-muinka / tantarik tanta. / Memoria eurian / urtaroz urtaro atzeraka / lainoa janean / ahanzturaren kontra: / udazken, uda eta udaberri, / eta negu denboran galdua. / Lainoa janean, / zahartzaroa». «Euria erdi bi» izeneko poema honek biltzen du Juan Kruz Igerabideren «Lainoa janean» poema liburua-ren mamia. Bertan, azken hamarkadan euriaren inguruan egin duen hausnarketatik sortu dituen poemak bildu ditu, «bizitzaren udazkena» bizi duen honetan: «'Lainoa janean' udazkenaren irudi bat da. Udazkenetik begiratzen diot bizitzari, bizitzaren udazkenean sartua nago, eta oraindik ez dut ikusten ongi zertan ibili naizen bizitza honetan. Beraz, lainoa janean jarraitzen dut, gogoeta egiten».

Hausnarketa horiek azken urteetan presente izan dituen «euri-rieko poemak» forman aurkeztu ditu Igerabidek —«euria jai eta berehala hiltzen da, eta horrek bizitzaren irudi bat eskaintzen digu», hausnartu zuen liburua-ren aurkezpenean— eta horiek antolatzeko orduan atzeko aurrerako bidea hautatu du; udazkenetik hasita, alegia, edo bestela esanda, gaur egunetik iraganera.

#### Mina pizgarri


Bildumak batzen dituen 70 aleetatik bakarra dago pertsona bati eskainia eta, Igerabidek azaldu zuenez, bertan islatzen den unek bizitzaren gaineko ikuspuntu berria ekarri dio: «Mamen jarzen du. Mamen izan zen gure lagun handi bat, joan den urtean hil zena. Hunkituta utzi ninduen bere ahizpak esan zidanean azken egunak nire liburu batekin pasatu zituela, «Begi-niaren poemak»-ekin». Poema lagunaren heriotzatik abiatzen bada ere, une hori «bizitzaren akuilu» gisa sentitu zuen: «Bai, hil da, joan zaigu, baina bizitzeko gogoia berriro dit eta poema hauetan badago mina, ugaria eta batzuetan oso zorrotza, baina bizitzeko gogoia berpizten didaten minak dira, eta talai horretatik idatzi ditut».

Poema-liburuan zehar filosofia ere presente dagoela azaldu zuen poeta adunarrak, eta musikarekiko «etengabe elkarriketa» ere badagoela, Igerabideren hitzetan, «bizitzaz hitz egiten dugulako musikaz ari garenean; ikusten ez dugunaz

## Bizitzaren udazkenean ere esateko asko dagoelako

«Bizitzaren udazkenari» begira jarri da Juan Kruz Igerabide aurkeztu berri duen «Lainoa janean» poema liburua. Euria bizitzaren metafora gisa hartuta, gogoetan aritu da poeta

adunarra azken zortzi-hamar urteetan, eta hausnarketa prozesu horri amaiera ematera datorren liburu honen bidez, idazteko arrainoz baino biziago duela azaldu du.



Aintzane Galardik eta Juan Kruz Igerabidek atzo aurkeztu zituzten Ereinekin argitaratu dituzten poema liburua.

Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

## MAROKOKO MENDAFIN USAINEKO ERREALITATEAK POEMA BILAKATU DITU AINTZANE GALARDIK

Marokora egindako bidaietan arnastu duen errealitatea eraman du Aintzane Galardik «Mendafin usaineko iluntzeak» bere hirugarren poesia liburura. Blas de Otero poesia lehiaketa irabazita argitaratu du Galardik bilduma eta bertan biltzen dituen 69 olerkiak hiru ataletan sailkatu ditu. «Urdinguneak Atlaseko zerumugan» izenekoan kultura berria ezagutzeak sortu dizkion sentsazioak bildu ditu oiartzuarrak, «Kelaât M'Gounako ilunabarrak» tamazight familia batean egindako egonaldiak piztu dizkionak batzen ditu eta, «Gauaz haraindiko palmondoak» atalean,

bidaietatik itzuli ostean, «distantzia hartuta» osatutako poemak bateratu ditu.

«Poesia egiten dugunean biluzten ari garela esaten dugu baina, nire kasuan, errealitate batetik beste errealitate bat sortu dut», azaldu zuen Galardik, eta poemetan Marokoko bizimoduaz, kulturaz, ohiturez, egunerokotasunaz eta emakumearen egoeraz ere hitz egiten duela azaldu zuen.

Olerkiez gainera, liburuak Galardik berak egindako ilustrazioak ere baditu, «batzuetan poemek marraztera eramaten nautelako eta, beste batzuetan, ilustrazioek gidatzen naute poemetara». AA

mintzatzeko modu bat izan da gizakiaren hasiera-hasieratik».

Zertarako idazten eta argitaratzen duen ere maiz hausnartu duela onartu zuen Igerabidek baina, azkenean, beti arra sortzen zaiola ziurtatu zuen. Eta «poetok idatziz hobeto adierazten garenaz», azalpena olerki formatuan eskaini zuen: «Olen-tzerori idazten hasi nintzen / gutun sekretu hura / konturatu nintzelarik / gauzak okerrera zihozela ezinbestean / eta izaki magikoren bati / laguntza eskatu beharko niola bertsotan / zeren beste guztiak lanpeturik baitzebiltzan / amaierarik gabeko egin beharrean. / Eta hau oraindik ez da amaitu».